

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

5544

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 19koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzak onartzen dituen.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariak, 2025eko abuztuaren 1ean emandako ebazpenaren bidez (2025-09-04ko EHAA; 167. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen. Deialdi horri dagokion azterketaldia bukatu ondoren, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzak onartzen dira honen bitartez. Hortaz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzak onartzea. Interesdun bakoitzak Azterketen kontsultatu beharko ditu bere azterketen behin-behineko emaitzak: «Eskabideak < Hizkuntza-eskakizunak < Eskabideen kontsulta eta jarraipena < IVAPEko ohiko deialdiak (2025-08-01) < Emaitzak»

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, interesdunek 5 egun balio-duneko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariari.

Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, epe horren barruan aurkeztu beharko dira, Azterketen bidez: «Eskabideak < Hizkuntza-eskakizunak < Eskabideen kontsulta eta jarraipena < IVAPEko ohiko deialdiak (2025-08-01) < Erreklamazio edo errekurso berria».

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 19a.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria,
LEIRE CORRALES GOTI.